

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko abuztuaren 25a / VI. urtea / 193. zenbakia



Artzain Eguna 28. ekitaldia ospatuko dute igande honetan.

Artzain Eguna Arakil-Uharten

Artzain Eguna ospatuko dute igande honetan Arakil-Uharteko Geinbera zelaian, Aralar-Mendi elkarteak antolatuta. Ardi gazta txapelketa, artisauak, artzain-txakur-aren txapelketa eta beste hainbat

ekitaldi izanen dira egun osoan zehar, Nafarroako artzainen omeneko azoka honetan. Arrazatzen onartu berri dituzten euskal artzain-txakurrak ere izango dira eguneko protagonistak.

Hasi da aurrendenboraldia. Telebistaz, egunkariz, irrati... eman digute 'fitxaje' berrien berri. Gazteak, garestiak, batez ere garestiak. Entrenamendu eta aurreneko partiduak jarraitzeko ere aukera eman digute komunikabideek. Eta noski, Sevilla eta Celta-rekin gertatu dena ezin pasatzen utzi. Orain hogeita bi taldez osaturiko liga. Ai...

Euskal Herri osoan, halare, hainbat eta hainbat gaztek, era aunitzez ere 'diskretoagoan' eman diote hasiera aurrendenboraldiari. Merkealditan botak erosi, entrenatzeko bertze galtza motz pare bat ere eta hor dabilta beren herriko futbol zelaietan (batzuei futbol zelai deitzeak ere lotsa ematen dit) ahal duten guztia eman. Dirua ez dute sobe-

ran izango baina ilusioa bai. Batzuk seguruaski, eserlekuetan pasa beharko dituzte ligako partidu gehienak, entrenamendutara sekula huts egin ez arren. Denbora ugari eskaintzen diote futbolari, gehiegi agian, gero batere ez jokatzeko eta batere ez kobratzeko. Ilusioa daukate soberan.

Eta Euskal Herriko xoko bakan batzuetan, guzti hauek baino era 'diskretoagoan' oraindik, neska gazte batzuk ere ongi pasatzen dugu gehien gustatzen zaigun kirolean murgildurik. Neskak? Futboleak? Errango dute aunitzek. Bai, bai, zergaitik ez? Futbola ez da nesken kontua.

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Zenbat aldiz entzun behar ote dugu hori? Seguruena, hori dioenak futbolaren alde bat bakarrik dauka gogoan: gogorkeria, sarrerak, indarkeria... Gaur egun futbola indarra baino zerbait gehiago da; ikuskizuna da, teknika eta taktika paregabea, Laudrup, kontzentrazioa, inteligentzia, Barça, mugitzen jakitea, politena egitea. Hau horrela izanik, mutila edo neska izateak ez dauka berebiziko garrantziarik. Noski, mutilaren bizkortasuna, abiadura, indarra, neskarena baino handiagoa da, baina zelaian behar den kontzentrazioa eta inteligentzia, mugitzen jakitea edota

baloia kontrola bai nesken bai mutilengan berdina izan daiteke. Horretarako aurriritziak baztertu eta tiki-ttikitatik utzi behar zaie neskei futboleak jokatzen, nesken kirola dela erakutsi behar zaie, gerora mutilek haina esperientzia izan dezaten. Ez ni eta nire gisako aunitz bezala, koxkortu eta gero hasi garela lasai eta lotsarik gabe futboleak jokatzen; horregatik nahiko berandu ikasi behar izan ditugu oinarritzeko gauzak, mutilek tiki-ttikitatik ikasi dutena. Beraz, nesken partidu batean ez duzue seguruena sarrera gogorrik ikusiko, partiduaren erritmoa ere lasaia izango da baina futbola ikusiko duzue. Futbolaren kalitatea ekipoaren kalitatearen araberakoa da, ez sexuaren araberakoa.

Futbolaren gorabeherak

GUERE AUKERAK

LEHIAKETA

Sanfermin Txikiak iragarriko dituen kartel lehiaketa abian da. Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkar- teak antolatuta irailaren bata baino lehen eraman behar dira elkar- teak Aldapa kaleko 5. zenbakian duen egoitzara. Lanak DINA-3 orrietan eta nahi adina aurkeztu daitezke. Guztiak festetako batzordearen esku geratuko dira. Originalean 'San Fer- min de Aldapa-Aldapako Sanfermin 22, 23, 24 septiembre 1995. Organi- za: Comisión de Fiestas de Navarre- ría. Colabora: Ayuntamiento de Pamplona-Iruña' idatzi beharko du lanak aurkezten duenak.

ERAKUSKETA

Begoña Rastrilloren margoak ikus- gai daude Iruñeko San Gregorio ka- leko Kaixo tabernan. Erakusketa irailaren 4ra bitartean egonen da za- balik aste osoan zehar.

Lizarrako Ramiro de Maeztu Mu- seoan Josetxo Santos eskultorearen lanak daude ikusgai. Erakusketa irailaren bukaera bitartean dago za- balik. Santosek berriki Madril- en erakutsi ditu bere lanak, egurra eta metala erabiltzen ditu bere eskul- turak egiteko.

ANTZERKIA

Herriz-herri 95 ekitaldien barruan, Trokolo Antzerkiak 'Librotikoak' lana aurkeztuko du gaur Mendazako frontoian zortzi t'erdietatik aitzina. Bihar, berri 'Liburulariak' (au- rreko lana euskaraz) antzeztuko dute Oitzeko plazan gaueko bederatzie- tan eta etzi, aldiz, arratsaldeko zor- tzi-eran Aranoko frontoian.

Atarrabian Retablo de Figurillas antzerki taldeak 'Txori zoriontsua' eta 'Kurrutako hauraren abenturak' lanak aurkeztuko ditu. Umeentzako antzerkia arratsaldeko zazpiretan izanen da Martiket kiroldegian.

Zugarramurdiko leizeetan Sorigi- ñak ikuskizuna aurkezten du egu- notan eta asteburuan Kukubiltxo an- tzerki taldeak. Gaur, arratsaldeko seiretan eta bihar eta etzi, goizez ordubatean eta arratsaldez seiretan.

MUSIKA

Eragaitz, Cuarto Creciente eta To- do al Rojo taldeak Iruñeko Gotorle- kuan izanen dira bihar gaueko ha- marretan. 'Rock en los fosos' egita- rauaren barruan.

ZINEMA

Galipentzuko plazan Herriz-herri 95-ek antolatuta, 'El fujitivo' fime- a eskainiko da gaueko hamarretan. Pelikula berdina Bizkarreta-Gen- dianen emanen da herriko plazan ere aurrekoaren ordu berean.

Irurtzunen, heldu den asteazke- nean, hilak 30, 'Ipar haizearen erro- nka' marrazki bizidun filmea pantailaratuko da. Filmea gaueko hamarretan Foruen plazan ikus dai- teke.

NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

Osasunaren babeslea

Nafarroako lehen tal- dearen jarduna sobe- ra urrutitik jarraitu arren, gorritxo- inguruan suerta- tzen denak ez nau hotz uz- ten. Babeslearena izan da azkena, eztabaida sortu zuen gaia. Taldearen aur-

txoek, iragarritakoa ez zen finantza erakunde baten izena zeramaten. Akordioa- ren nondik norakoak ez dira argitara eman, alta, zenbait kontu ezagunak dira. Dirua, finantza erakunde horren gizarte-ekintzetako fondo-

gertakizunak ez du komu- nikabide orojakileen jakin- mina piztu. Hauetan ere, fi- tsik ez. Ezaguna da ere, au- rreko finantza erakundeak berrogei elastiko jaso zitue- la bere izena behar bezalaxe paratzeko, horra hor afera



tengo aurkezpenerako pu- blizitate jakin bat zegoen iragarrita, finantza erakun- de batena, baina, eguna iri- tsi zenean jokalarien bula- rraldean hitzik ez. Aste ho- netan Oviedoren kontra jo- katu duten partiduan, gorri-

tik atera da, eta publizitatea Sadar futbol zelaian agertu- ko da, Iruñetik kanpo joku- tuko diren partiduetarako bestelako babesleen izenak erabiltzeko asmoa dute. Zer dela eta azken uneko alda- keta hori? Antza denez,

horren gakoa, erabili hitzen efektu 'zatarra' izan da akordioa eragotzi duena. Kontsentsu bidean omen den gizarte honetan, Gazte- lu plazako taldeak 'Euska- di' hitza bihotz ondoan era- mateak onartezina dirudi.

ASTEKO PERTSONAIK



Jesus Maria Fernandez Diaz
Osasun zuzendari nagusia

Jesus Maria Fernandez Diaz Nafarroako Osasun zuzendari nagusia aukeratu zuten astelehenean. Fernandez Diaz zuzendari berriak medikuntza ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean eta famili medi- kuntzan espezialista da. 1988-1991 urteetan Osasun Publikoko Insti- tutuko zuzendaria eta Osasunbideko zuzendariaren laguntzailea izan zen. 1991z geroztik Euskal Autonomi Elkarteko Osasun kontseilari- ren aholkulari nagusia izan da Fernandez Diaz. Honetaz gain, Brasilgo osasun sistemaren erreforman, Europako Batasunarekin eta Munduko Bankuarekin aritu da lanean azken urteetan. Nafarroako Osasun zu- zendari berria Iruñean jaioa da, 38. urte ditu, ezkondua dago eta bi seme-alaba dauzka.



Kepa Junkera
Trikitilaria

Kepa Junkera trikitilari bizkaitarrak Julio Pereira portugesarekin batera jo zuen asteazkenean Altsasuko Lumbier eskolan, Nafa- rroako Jaialdien barruan. Emaldian jende ugari bildu zen eta Kepa Junkerak trikitixa jotzen maisua dela frogatu zuen ederki asko. Kepa Junkera trikitilaria Bilbon jaio zen 1965. urtean eta, trikitixaz gain, alboka, txistua eta txalaparta musika tresnak jotzen ditu. Nahiz eta musikan ikasten zortzi urterekin hasi zen, trikitixa bere kabuz ikasi du bilbotarrak. 1990. urtean interprete gazteen Erakusketa Nazionala irabazi zuen. Egun Kepa Junkera taldeko burua da eta batzuetan Os- korri musika taldearekin aritzen da lanean. Dagoeneko bost disko ka- rrikaratu ditu.

AHAZTU GABE!

MUSIKA



Itoizko urtegiaren aurka egu- notan Itoitzen bertan egiten ari den kanpaldiaren ba- rruan hainbat kultur ekitaldi antolatu dituzte Itoizko Koordinakundeak eta Nafa- rroako hainbat talde ekolo- gistek. Kanpaldia iragan os- tiralean hasi zen Itoitzerantz abiatu zen 'La Tortuga pe- rezosa' taldeak antolatutako txirindulari martxa umore- tsuarekin batera. Martxako antolatzaileek, Itoizko urte- giaren aurka egiten ari den kanpaldiari amaiera ezin hobe emateko, kontzertua prestatu dute Agoizko he- rrian. Musika emanaldia bi- har izanen da Agoizteko frontoian gaueko ordu bate- tik aitzina. Rock kontzer- tuan parte hartuko duten taldeak Irungo Baldin- bada, Andaluziako Reincidentes eta EH Sukarra eibartarrak izango dira. Kontzertuko sarrerak Agoizteko frontoi- ko txarteldegian daude sal- gai, 1000 pezetan (40 libera inguru).

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostira- lera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00eta- ra... 'Karakola segi hola' gaz- teendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elka- rrizketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasu- na, sukaldaritza, ohiturak...



Iruñea

Haurrentzako antzerki tailerrak

E. E. IRUÑEA

Nafarroako Antzerki Eskolak haurrentzako antzerki tailerrak antolatu ditu, euskaraz eta erdaraz. Ikastaroa datorren astetik, abuztuaren 28tik, irailaren lehen bitarte izango da, eta lau eta hamabi urte bitarteko haurrek hartu ahal izango dute parte. Haurrak bi taldetan banatuko dira, zazpi urte bitartekoak batean, eta gainontzekoak bestean. Ordutegia, hala ere, bat bera izango da bi taldeetako haurrentzat: goizeko hamaiketarik eguerdiko hamabi t'erdia arte. Talde bakoitzean, halaber, hemezortzi haur egon ahal izango dira. Parte hartu nahi dutenek oraindik badute aukera, ez baitira oraindik talde guztiak osatu.

Garai batean Nafarroako Antzerki Eskolan ikasle arituak dira euskarazko egungo tailerretako irakasleak, Belen Alvarez eta Elena Amondarain, hain zuzen ere. Belen Alvarezek zalantzarik gabe azpimarratu du halako ikastaroek haurren bizitzan duten garrantzia. Halaber, «haurrek agertzen duten interesa eta motibazioa» nabarmendu ditu antzerki irakasleak. Ikastaroak antolatu ahal izateko, Iruñeko Udaleko Euskara Zerbitzuko laguntza jaso du Nafarroako Antzerki Eskolak.

Haurrentzako antzerki ikastaro honen helburu nagusia, bestalde, haurren sormena eta gor-



Haurren sormena lantzea da ikastaroaren helburua.

putz adierazpena lantzea da. Horretarako, joko dramatiko eta sinbolikoak egiten dituzte eta, halaber, istorio txikiak prestatu eta antzezten dituzte. «Garrantzitsuena ez da testu bat ikasi eta antzezte, sormena piztea baizik. Jokotzat hartu behar dituzte haurrek halako tailerrak», azaldu du Belen Alvarezek.

Aurten bezala iaz ere antolatu zituen Nafarroako Antzerki Eskolak haurrentzako euskarazko ikastaroak. Ideia, ordea, orain dela urte batzuk sortu zen erdar-

razko tailerrak antolatu eta gero. «Garai hartan, Iruñeko Udalaren laguntzaz, Gotorlekuan antolatu genituen haurrentzako ikastaroak, baina erdaraz bakarrik. Euskaraz egiteko eskatzen zuten guraso eta haur asko hurbildu ziren guregana eta, horregatik, hurrengo urtean euskarazkoak ere prestatzea erabaki genuen».

Udakoak, hala ere, ez dira euskaraz antolatzen dituzten antzerki ikastaro bakarrik, eta ikasturtean zehar ere horietan parte hartzeko aukera izaten dute Iru-

ñeko haurrek. Izan ere, uda garaian Iruñetik kanpo oporretara joaten diren askok orduan dute aukera bakarra. Belen Alvarezek dioenez, primeran moldatzen dira neska-mutilak antzerki ikastaroetan eta gustora hartzen dute parte joko eta antzeztan guztietan. Horieta asko, gainera, udako tailerretan parte hartu eta gero neguan itzultzen dira, pozik. Belen Alvarezek «oso garrantzitsutzat» jotzen du hori, «haurren garapena ikusteko aukera baitugu».

Bera

Julian Gaiarre kantu txapelketako irabazleen kontzertua gaur

JON ABRIL / BERA

Arratsaldeko zortzi t'erdietatik aurrera, Julian Gaiarre 5. kantu txapelketako irabazleen kontzertua izango da gaur Berako kultur etxean. Emanaldi hauek asteazkenean hasi ziren Calahorran, ostegunean Miranda de Ebron izan ziren eta bihar eta etzi Jaca eta Erronkarin izanen dira.

Berako emanaldian, Maria Claudia Codreanu mezzo-soprano errumaniarra ariko da kantari, bigarren saria lortu zuena. Berarekin batera, sariketa honetan emakumeen atalean hirugarren saria lortu zuen Ajtalina Adamova mezzo-soprano errusiarrak eta gizonezkoetan hirugarren saria eskuratu zuen Omar Gagnidze baritono georgiarra ariko dira Beran. Hiru abeslariak Iruñeko Pablo Sarasate orkestraren

laguntza izango dute, Miquel Ortégaren zuzendaritzapean.

Nafarroako Gobernu Kultura Sailak eta Berako Udalak antolatutako ekitaldi honetako programa Mozart, Donizetti, Rossini, Verdi eta Bizeten konposizioek osatzen dute.

Berakoa ezezik, beste kontzertu bat ere izanen da Nafarroan, Erronkarin hain zuzen. Herri hau aukeratu dute Julian Gaiarre tenorearen jaioterria izan zelako eta bertan eskainiko dute lehiaketako saridunen bosgarren eta azken kontzertua. Igandean, eguerdiko hamabi t'erdietan, Erronkariko Gazteluko Ama Birjinaren ermitan Maria Claudia Codreanu mezzo-soprano errumaniarra ariko da, Pedro Jose Rodriguez piano jole donostiarrak lagunduta.

Besteak beste, Mozart, Rossi-

ni, Bizet eta Falla musikagileen obrak interpretatuko ditu iazko lehiaketan bigarren saria lortu zuen abeslari errumaniarrak. Erronkariko kontzertu honek Udalaren, Gaiarre Museoaren eta Gaiarre Fundazioaren laguntza jaso du.

1994ko irailaren 26tik urriaren 4ra egin zen bosgarren kantu lehiaketa hau Iruñean. Gizonezkoetan, Yasuo Horiuchi japoniarrak lortu zuen lehen saria, Nugzar Gamgebeli georgiarrak bigarrena eta Beran egongo den Omar Gagnidze georgiarrak hirugarrena. Emakumei dagokionez, lehen saria hutsik geratu zen, eta bigarren eta hirugarren sariak Beran egongo diren emakumeentzat izan ziren. Sariketa honen seigarren ekitaldia 1996ko irailaren 15etik 22ra egingo da.

Martzilla

Aitzur-jaurtiketa txapelketa igandean izanen da

IRUÑEA

Munduko aitzur-jaurtiketa txapelketa etzi, igandean, egingen da Martzillan, herriko festetako egitarauaren barruan. El Estoque peñak antolatuta, aurtengoa 'Rabiosa' —martzillarrek aitzurrari deitzen dioten moduan— jaurtiketaren lehiaketa egingen den bederatzigarren aldia izanen da.

Txapelketa bi kategoriatan, emakumezkoak eta gizonezkoak, banatuko da iaz bezala. Igandekoan, jaurtiketa markarik onena —29,1 metro— lortuta duen David Mikeleiz izanen da; gazteen artean Estatuko disko-jaurtiketa txapelduna ere bada Mikeleiz.

Aitzurrak, gutxi gora-behera hiru kilokoa izan behar du eta 70 zentimetro luze den egurrezko eskutoki eduki. Ekitaldiak Martzillako Udalaren dirulaguntza jaso du.


Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Zakarrontziaren beldur

Martiarena intsumitu jatorrak azken eguna zuen hura Iruñeko kartzelan. Biharamunean, 21 hilabete luze giltzapeturik eman eta gero, kalera aterako zen. Gauzak horrela, aski ongi zekien zer tokatzen zitzaion arratsalde horretan. Ohitura zaharrari jarraiki, bere kideek patioko dutxara eramane eta, arropa kendu gabe, ur hotzez bustitiko zuten. Ez zen patu txarra. Eguzkiak gogor jotzen zuen abuztuko arratsalde horretan, eta ez zuen, beraz, hotzik pasatuko. Ezin dute gauza bera esan, dutxan hotzik ez zutela pasatu alegia, joan den neguan zehar karrikatutako kideek.

Hala ere, Martiarena ez zegoen erraz amore emateko prest. Finean, dutxaren ohiturak ez zeukan inolako graziaz baldin eta protagonistak trabarik jartzen ez bazuen. Gauzak horrela, kideak harengana hurbildu zirelarik, ziztu bizian ihes egin zuen. Uharteko *criatura* ez da ez korrikalari ma-



kala, eta kostata lortu zuten bera dutxan sartzea. Azkenean txorrotako urak Martiarenaren gorpurtza busti zuenean, patioan elkartutako lagun guztiak deiadarka hasi ziren.

Patioko bideo-kamera, alde batera eta bestera abiada bizian mugitzen hasi zen oihu mehatxugarri horien zergatiaren bila. On Sola izeneko funtzionaria zen aparatuen gidaria. Zentroan, telebista monitorearen aurrean, kostata eusten zion kameraren mandoari. Izerditan blai, behin eta berriz ihes egiten zion mandoak atzamar bustien artean. Berea ez zen, baina, beroak eragindako izerdia. Izerdi hotza zen, izuak ixuriazitakoa. Zeharo beldurturik zegoen, eta ez zuen ikara gainetik kendu oihuen sortzailea Martiarenaren dutxa zela konturatu zen arte. Lasaitu zen. Presoek ez zuten bera, azken sedizioan gertatu zen bezala, berriro ere zakarrontzi batean sartuko. Eskerrak. Dena dela, On Solak, badaezpada ere, sedizioa duela hamar urte gertatu zenetik egunero egin duen bezala, zentroan lan egiten segituko du. Badaezpada, ez da patiora edota galeriara aterako; izan ere, zakarrontzi asko daude inguru horietan, eta bera zakarrontzien beldur da.



Jende andana bilduko da hilaren 27an Arakil-Uharten.

Nafarroa osoko baserritarrak bilduko dira igande honetan Arakil-Uharteko Geinbera zelaian Aralar-Mendi elkarteak antolatutako Artzain Eguna gozatzeko asmoz. Lanean bezala, txakurrak izango dituzte lagun artzainek festa honetan ere. Artzain-txakurren txapelketan, euren trebezia erakutsiko dute bertara hurbilduko den jendetzaren aurrean.

Artzainei omenaldia

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Ohiturak agintzen duen legez igande honetan, abuztuaren azkena, Artzainaren Eguna 28. ekitaldia ospatuko da Arakil-Uharteko Geinbera zelaian, Aralar-Mendi elkarteak antolatuta.

Artzainaren Eguna hasiera emateko, Nafarroako ardi-esnez egindako gazta txapelketa egingo da goizean. Gainera, Nafarroako ardi-latxaren erakusketa eta txapelketa izango da, ardi burubeltzek zein burugorriek parte hartuko dutela. Esne gehien emango duen ardiak ere saria jasoko du. Ardi irabazlea zein den jakiteko, noski, albaitari laguntza izango dute epaimahai-kideek, urtean zehar egindako kontrolari esker. Goizean ere, ile-mozte txapelketa izango da eta hamaikak eta ordu bi bitartean, eguneko ekitaldirik nagusientako bat: euskal artzain-zakurren hirugarren erakusketa. Euskal artzain-zakurren arraza aurten onartu dute Espainiako Estatuan, Mariano Gomez albaitari bilbotarrak horri buruzko



Aralar-Mendik antolatzen du artzainaren omenezko festa.

Gero eta artzain gutxiago dago, gaur egungo gazteek ez baitute artzain izan nahi».

tesia Madrigo Unibertsitate Konplutenseko Albaitaritzako Fakultatean urtarrean aurkeztu zuten tesia Madrigo Unibertsitate Konplutenseko Albaitaritzako Fakultatean eta *cum laude* kalifikazioa jaso zuten. Ikerketa honi esker, Espainiako Estatuan, Mariano Gomez albaitari bilbotarrak horri buruzko

Goizaldeko ekitaldien ostean, herri bazkaria izango da Arakil-Uharteko pilotalekuan, ordu bi eta erdiak aldera, eta ondoren, arratsaldeko bostetan, Nafarroako artzain-zakurren 28. Txapelketa. Hauxe da, zailentzen gabe, eguneko ekitaldirik ikusgarriena eta horren adierazle garbia da urtero erakartzen duen jende andana. Nafarroako izkin guztietatik etorritakoak biltzen dira Geinbera zelaian eta arretaz jarraitzen dute artzain eta zakurrek eginbeharrekoa, haien trebeziak harrituta.



LANASUA

Euskarraza

E. E. / IRUNEA


artzainaren arraza onartu zuten ekainaren 13an aurkeztu zuten tesia Madrigo Unibertsitate Konplutenseko Albaitaritzako Fakultatean eta *cum laude* kalifikazioa jaso zuten. Ikerketa honi esker, Espainiako Estatuan, Mariano Gomez albaitari bilbotarrak horri buruzko

Artzainaren Eguna, abuztuaren 28. ekitaldia ospatuko da Arakil-Uharteko Geinbera zelaian, Aralar-Mendi elkarteak antolatutako Artzain Eguna gozatzeko asmoz. Lanean bezala, txakurrak izango dituzte lagun artzainek festa honetan ere. Artzain-txakurren txapelketan, euren trebezia erakutsiko dute bertara hurbilduko den jendetzaren aurrean.

Artzainaren Eguna, abuztuaren 28. ekitaldia ospatuko da Arakil-Uharteko Geinbera zelaian, Aralar-Mendi elkarteak antolatutako Artzain Eguna gozatzeko asmoz. Lanean bezala, txakurrak izango dituzte lagun artzainek festa honetan ere. Artzain-txakurren txapelketan, euren trebezia erakutsiko dute bertara hurbilduko den jendetzaren aurrean.

Artzainaren Eguna, abuztuaren 28. ekitaldia ospatuko da Arakil-Uharteko Geinbera zelaian, Aralar-Mendi elkarteak antolatutako Artzain Eguna gozatzeko asmoz. Lanean bezala, txakurrak izango dituzte lagun artzainek festa honetan ere. Artzain-txakurren txapelketan, euren trebezia erakutsiko dute bertara hurbilduko den jendetzaren aurrean.

Euskal artzain-txakurren arraza, orain dela gutxi onartu dute, Mariano Gomez albaitari bilbotarrak artzain-txakurrei buruzko tesia ondoren.



GORA

Aurten ere, iaz bezala, txapela buruan jantzen saiatuko da Felix Irigoien artzain amaierarra, baina ez du lan makala izango, Amaiur eta Orbaizetaren abuztuaren 13 eta 20an egindako txapelketetan epaimahai-kideek ikusi ahal izan dutenez, inoiz baino bikainagoa baita artzain eta zakur partaideen maila.

ARTZAIN GAZTE GUTXI

Felix Irigoien amaierarra hamalau urterekin hasi zen artzain lanetan eta Arakil-Uharteko bezalako txapelketetan ere aspalditik hartzen du parte. Iaz Nafarroako txapela eskuratu zuen Geinberako zelaian, baina ez zen hura, ordea, lehen aldian izan, hirutan izan baita gure herraldeko txapelkun. Aurten ere txapela berritzen saiatuko da baina ez du uste lan erraza izango denik.

Irigoien ustetan, garrantzitsua da igandeko txapelketa baina lehiaketa baino gehiago, «artzainaren festa handia» dela azpimarratu du. «Egun osoan zehar ekitaldi anitz izaten dira, giro ederra sortzen da eta guztiok elkar ikusteko eta egoteko aukera ezin hobea da».

Artzain guztiak bezala, zakurrak ditu Felix Irigoienek ere lagun eta lankide, 'Rubi' eta 'Kubino' batez ere. «Lan handia egiten dute. Nik behintzat, beste hiru edo lau artzain baino, nahiago dut zakur bakar bat lan egiteko». Normalean azkar ikasten dute zakur gazteak egin behar duten lana eta artzain-zakur zaharrak dira irakasleak aproposenak Felix Irigoien iritziz. Hala ere, artzain-zakurren artean badira ezberdintasunak ere eta amaierarraren hitzetan, «nahiz eta ikasi, badira sekula santan onak izango ez diren txakurrak». 'Rubi' eta 'Kubino' ez dira, behintzat, azken horietakoak eta oraingoz lortu dituen Nafarroako hiru txapelak euren laguntza irabazi ditu.

Nafarroako artzainek, hala ere, ez dute Geinberako zelaia borrokarik zailena, egunerokoa baizik. Felix Irigoien, erran bezala, gazte hasi zen artzain, hamalau urterekin. «Mugaz bestalderaren eramanen nituen ardiak eta lan horretan segitu dut bizitza osoan». 43 urte ditu gaur Felix Irigoienek eta 500 ardi inguru. Bizitza, ordea, ez da erraza eta mendiko nekazaritzaren egoera, bere ustez ez da ona: «Ardiak badira baina gero eta gutxiago, ez baitago zaharren lana jarraituko duen gazterik. Lan gogorra da eta gustatu behar zaizu, bestela, ezinezkoa da. Gainera, es du diru askorik ematen. Artzain gazteak egon badira baina gutxi, ez dute lan hau maite. Beraz, artzain zaharrak jubilatzaren diren, ardi arduraren hartuko duenik ez badago, ardi horiek erretiratu behar ditu. Eta noski, gero eta gutxiago daude. Artzain gutxiago eta ardi gutxiago».

Lohiak eta basoak Esako urtegia mehatxatzen dute

Esako urtegia Francisco Franco jeneralak inauratu zuen orain dela ia 40 urte, 1959. urtean. Urtean geratu ziren 2.400 hektarea lur, gehienak Aragoa aldean. 479 metro kubikoko kapazitatea zuen inauratu zutenean, eta gaur egun ere hala duela diote.

Ehuneko hamalau lohia da Eska eta Aragoa ugaldeek Belaguaren eta Candanchuren artean biltzen den ur guztia eramaten dute urtegioko uhar-karaino. Bi ugalde horiek bat egiten dute El Matralen, aspaldian almiadiak biltzen ziren lekuan (egun hauetan ederki ikusten da Ruestako errepi-detik), baina haraino ez dute

El Matralera jaisteko gorabehera handia zegoen. Aldapatzar bat Artigas del Chopar izeneko lekura heltzeko eta beste bat La Ramblaraino joan nahi bezenute. Gaur dena zelaia da, dena lohia. leku askotan gutxienez 11 metro lohi pilatu da». Gainera gogoratzen du nola gerra baino lehen Aragoa ugaldeak eraman zuen soto handi bat, Las Suerres del Chopar, dena uretan irentsiz. «Ibaian indarra gaitza da baina dirudinez batzuk ez dute hori kontuan hartzen» dio Siguesko artzain zaharrak aurpegian etsipen keina duela. Casajusen ustez, urtegiak kapazitatearen laurden

gaur egun. Hamar metro luzeko arbol tantaia ere badira, baina gehienak sahasak dira. Urtegiari teorikoki dagokion alderdia da baina lurra alturaz irabazi dituen metroekin hor sartu diren txipu eta sahasak lortu dute ura baino gehiago izatea. Ura eta eguzkia urte osoan baso berria gelditzen duenik ez dago. Jadanik basurde eta beste basapizti batzuen babesleku bikaina bilakatu da. Ardiek ere maite dute alderdia eta hortxe nahi adina bazka badute baita udarik idorrenean. **Administrazioaren berrera** Bistan da Administrazioaren berrera Bistan da Administrazioaren berrera Bistan da Administrazioaren berrera



bat baldia omen du lohia dela-eta.

Amazonas oihan berria Hala ere, Jesus Casajusek esandakoa egiaztatzen duen txosten teknikorik ez badago ere, urtegiaren buztanera bertaraten den edozeinek sinetsiko du Aragoako artzainaren baieztatpena. Eskualdeko mapa bat eskuan hartuta eta gain batean eserita edozeinek konprobatuko du urdinez heldu diren urtegiako azken hiru kilometroko baso sarrira dela

lohiaren arazoa, eta Ebro Konfederazioaren arabera, urtegia 479 hektometro kubiko ur biltzeko gauza omen da oraindik ere. Administrazioaren kezka ez da urtegia garbitzea, bestelakoa da: Esako urtegia handitzea. Antza denez, diru eza da oztopo bakarra. 1993an hastekoak ziren lanei ez zaie ekin 1995eko udan eta obren hasiera urteetan luzatuko dela uste dute gainera gai honetaz aspertuta dauden biztanleek.

Kritikontzi



Hondartzak denentzat ote?

XANTI BEGIRISTAIN

Ni ez nauzue oso hondartza zalea, baina badakizue zer gertatzen den noizik behin «aizu, joango al gara hondartzara?» eta hortxe naukazue aida batean olatuei begira besteak beste.

Horixe gertatu zitzaidan uztailaren erdialdean, bat-batean nire burua Zurriolako hondartza ondoan ikusi nuen (bai, nik ere orain dela aste gutxi entzun nion Andoni Aizpuruari esaten «Gros-en» jatorrizko izen euskalduna horrela dela; hobe, ez da hala?). Eguraldia bikaina, hondartza berritua eta dotorea, eta akaburako han ikusi nituen beste hiruzpalau pertsona gurril-aulkitan ni bezalaxe, hau da, «balio gutxiagokoak», baina ez gutxiago garelako baizik eta aukera murriztagoak ematen dizkigutela oztopo eta behaztopoen bidez.

«Zer ongi!» -pentsatu nuen «hondartza hau, ziur aski, erabat praktikagarria izango da guretzat ere!; berritua egonik...».

Baina nire «zeru distiratsua» berehalaxe goibeldu eta ilundu zen. Izan ere, hondartzako barandilaraino hurbildu bezain azkar ikusi ahal izan nuen, hondarrera jaisteko hiruzpalau aldats egoki bazeuden ere, gero aldapa horiek ez zuten jarraibiderik itsaso aldera; badakizue nola jende gehienari gustatzen zaion eguzkitan egoteaz gain noizean behin ere bustitzea, eta horixe bera gertatu zitzaion

eraman ninduen lagunari ere. Beraz, eta «antzerkitxorik» ez egitearren hondarra gainean «hegan» eginez edota hondoratuz, han goian bakarrik gelditzea erabaki nuen, adiskidea uretan eta hondartzan murgiltzen zen bitartean. Eta orduan pentsatu nuen «ez, hau ez da gizarte zuzen eta solidario baten adierazpenik txukunena». Eta jarraian, nahi gabe, gogoia Andaluziako Benalmadena (Malagan) eta Pueblo Lagunako (Almerian) hondartzetara joan zitzaidan txistuka eta kantuz alai, han duela gutxi ikusi bainuen horrelako pasabide asko dituztela eginak hondartzetan gure sartzeko modua errazteko, logotipoak eta guzti.

Bai, handik pentsamendua oso triste itzuli zitzaidan, hemen, Hego Euskal Herrian ikusirik behin baino gehiagotan mugikortasun murrizteko pertsonekin ahaztu direla agintari eta teknikari ahalguztidunak. Panorama beltza gurea, ez da hala?, edo «beltzarana» bai behinik behin hondartza eta eguzki-kontu hauekin.

Jakinaren gainean nago Andaluzian ere txakurrak oinutsik dabilzala, eta moldatu beharreko gauza guztiak ez daudela egokiturik. Gainera, hondartzetako pasabide haiek seguruenak da jarri dituztela turismoa hobe erakartzeko, baina hala eta guztiz ere aitoritu behar dugu arlo horretan behintzat Zurriolan baino aurreratua ageri direla.

Pentsa ezazue zer-nolako lotsa izan beharko lukeen egitate horrek

EAEko gidarientzat; beti jo baitute beren burua beste komunitateena baino «gehiagotzat», eta orain hau, alor batzuetan gutxienez atzetik doazela, hi!

Zurriolako hondartzaren kasua ez dut uste bakarra denik; ez zait iruditzen Kontxan, Ondarretan, Zarautzen eta abarren direlako pasabideak daudenik, eta pentsa ezazue une batez baino ez bada ere zenbat hondartza dauden Euskal Herrian, bestela ikusi eguraldi albistegietan. Dena den, oker barenengo eta hondartza asko egokiturik balego, bekataria ni, eta hobe!

Bide batez adieraziko dut, Zurriolan, ni egondako tokian, han, Pasealeku Berriaren azken muturrean, hainbat harritzar bota duten alde horretan espreski, esertzeko bankuak falta zirela, eta hantxe emandako bi ordu haietan ikusi ahal izan nuen zer-nolako gora-beherak egiten zituzten pertsona adinduek oinetako hondar aleak kendu eta zapatak janzteko bankurik ez zela eta.

Baina izan gaitzen baikorrek eta eman diezaiogun beste aukerak bat Eusko Jaurlaritzara eta aldundietakoei, ikusiko duzue zeinen azkar demostratuko dituzten beren balioa eta lehiagarritasuna; azken finean, nor da ba mundu honetan akatsgabea? Datorren urteko denboraldirako baietz pasabide guztiak (edo ia-ia guztiak; ez da pasatu behar!) eginak EAEko hondartzetan, hau irakurri eta gero! Nik uste osoa daukat behintzat. Denbora izango da epaile.

Klasiko bitxi arrant klasiko

Joxemiel Bidador

Berako ekarpen joria (III)

Gernikakoaren berri izan zuenean Italian sekula santan berriro ez zuela kantatu behar erabaki zuen



Aurreko astekoan aipagai izan genuen San Estebanen parrokiako tenore bertsolari espartzinegiteilea zen Ignazio Larramendi. Gaurkoan beste tenore beratar garrantzitsu bat badugu izkiriagai, Isidoro Fagoaga Larratxe hain zuzen. 1895. urtean sortua, 1910.ean Argentinara joan beharra egokitu zitzaion, bertan ferreteria batean lanean zihardularikan. Titta Ruffo baritonoaren laguntzaz, Italiara abiatu zen musika ikasketak burutzeko asmoz, Parmako kontserbatorioan bekaduna suerta Campaniniren ikasle gisa. Gerrarekin Madrilera abiatu zen eta bertan Iribarne maisuarekin ibili zen bere estreinako emanaldia eskaini arte, 'Sansón y Dalila' lanarekin 1902.ean. Urte berean, eta Guridik berak deituta, Teodosio Goñikoaren papera bete egin zuen Amaia opera ezagunean. Fernandez Arbos maisuak luza aholkuari jarraikiz Wagnerren operen paperekin eskatu behar adina tesiturari egokitzeko ardura hartzen saiatu zen bereziki, Walkiriaren Sigmundo, Parsifal, Tristan eta abar.

Toscaninirekin aritu zen kantatzen Milango La Scalan hamaika urtetan zehar. 1937.an, Gernikakoaren berri izan zuenean, Italian sekula santan berriro ere ez zuela kantatu behar erabaki zuen, eta Donibane-Lohizunerat abiatu zen. Bertan atsegina zuen lana egiteari eutsi zion, hau da, sonetoak idazteari. Zoritzarrez, 1940an alemanek atxilotu zuten eta Gurseko kontzentrazio ordokian sartu. 1953.ean Argentinara harzara joan zen, eta handik berriz Donostiara. Kantatzeari utzi zionetik, lan ugari izkiriari zituena, esaterako: *Pedro Garat, El orfe de Francia* (1948), *Retablo de curiosidades: Huarte, Ravel, Paoli, Garraye y Eslava* (1959), *Domingo Garat, El defensor del biltzar, Unamuno a orillas del Bidasoa, Los poetas y el país vasco* (1969), *El teatro por dentro*, edota *A propósito de Goethe en euskera*.

Inazio Errandonea Goikoetxea

dugu gure egungo bigarren gizona. 1886.ean sorturik, lagun-dian sartu zen, 1918. urtean apaiztu zelarik. Madriliko *Razon y fe* aldizkari zuzendaria izan zen, baita hiri bereko idazleen etxeko nagusia. Donostian EUTG sonatua sortu zuen 1955. urtean. Halere, bere lanik bikainena klasikoaren literaturaren ikasketan garatu zuen. Oxfordeko unibertsitatean literatur ikasketak burutu ostean, doktoratu egin zen *La personalidad del coro en las tragedias de Sófocles* izenburuko tesiarekin. Bere lan gehienek Greziako antzerki klasikoaz dihardute, eta Sofokles idazlearengan oinarritzen dira batik bat: *Sófocles y su teatro* (1942), *Sófocles: investigaciones sobre la estructura de sus siete tragedias, la personalidad de sus coros* (1958), *Ediporen itzulpenak* (1959), *Antigona eta Elektrarena* (1965), *Aiante, Filoktetes eta Tarkiniena* (1968), *Gramática del griego bíblico* eta bi mila orrialde baino gehiago duen *Diccionario del mundo clásico* lan mardula.

Ahitzeko gogora dezagun Zigardibereko Juanito, Juan Errandonea Alzuguren alegia. Hauxe Zigardiberea baserriko semea dugu, 1917. urtean sortua, eta 49 urtetan zendua. Madrilko Unibertsitate nagusiko sumerio eta ekialdeko kulturako katedratikoa izan zen, eta ezagutzen zituen hizkuntzak ez ziren gutti: Euskara, italiara, espainola, frantsesa, inglesa, nederlandera, flamenjera, suediera, errusiera, turkiera, txekiera, latina, greziera, hebraiera, arabiera, arameoa, ugaritiera, siriera, etiopiera, akadiera eta sumerioera gutxienez. Biblia arras ongi ezagutzen zuen, bere *Eden y Paraiso* liburukian ederki ikus daitekeen legez. 'Analogias vascas en el vocabulario sumero-semítico' izenburuko artikulua agertarazi izan zuen *Antologika annua* izeneko aldizkarian. Bertan *itzal, zulo eta atzapar* hitzak sumerieran ere bazeudela baieztatzen zuen.



■ 'Iruñeko hiria' xake torneo irekiko zazpigarren ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 3an jokatu.

Jose Miguel Ugalde, (Euskal Herria) — Michael Rahal, (Bretainia Handia).

1.e4,c5; 2.Zf3,e6; 3.d3,d5; 4.bZ-d2,Zc6; 5.g3,g6; 6.Ag2,Ag7; 7.0-0,gZ-e7; 8.c3,0-0; 9.Ge1,b5.

Idea eta asmo garbiak edukitzea garrantzitsua da. Alde horretatik aurreratu beharra ikusi dute beltzek.

10.5.

Txurien jokoa alfila ixtea da. Baina eutsiko ote

diote peoen oldeari?

10.....Gb8; 11.b3,a5; 12.a3,f6; 13.d4,b4; 14.a-b4,a-b4.


Ikus koadroa. Hainbeste presiori erantzuteko 'Ab2' egokiena da.

15.b4,d4; 16.De2.

Egoera nahasia da. Txuriak atera dirá galtzaile. Azkeneko heldulekua oratzen saiatu dira; hala ere, beltzek oso erraz daukate.

16.....e5; 17.b5,e4; 18.c6.

Txuriek amore eman zuten, 'd3' jokaldiaz gaztelua galtzen baitzuten. ■



Nafarroako toponimia eta mapagintza' bildumako 22. zenbakia kaleratu du Nafarroako Gobernuak. Liburuaren aurkezpena gaur astebete egin zuten Zudairen eta bertan izan ziren Balbino Garcia de Albizu eta Arantxa Garate liburuaren egileak. Osotara 2.000 toponimo inguru jaso dituzte zenbaki berri honetan eta, informazio guztia biltzeko, Ameskoako ehun bat lagunekin hitz egin dute bi urte t'erdia iraun duen ikerketan zehar.

Ameskoako toponimiaz

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Aranzadua 94 Ameskoako ikerketa tailerrak antolatuta, bertako toponimiari buruzko liburua aurkeztu zuten joan den astean Zudairen. 'Nafarroako toponimia eta kartografia' bildumako 22. alea, hain zuzen ere. Bertan, Ameskoabarren, Ameskoagoiena eta Limitazioen toponimoak jasotzen dira, 2.000 inguru osotara. Balbino Garcia de Albizu eta Arantxa Garate egileekin batera, Juan Ramon Elorz Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiko ordezkaria, Jose Maria Jimeno Jurio lantaldeko hizkuntz zuzendaria eta Mikel Belasko hizkuntz koordinatzailea egon ziren liburuaren aurkezpenan.

'Nafarroako toponimia eta mapagintza' bildumako ale berri hau Balbino Garcia de Albizu eta Arantxa Garatek egin dute eta gainontzekoak bezala Nafarroako Gobernuak —Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak zehazki— argitaratu du. Izan ere, Lan Katastralak izeneko enpresarekin sinatu zuen Nafarroako Gobernuak herrialde osoko toponimiari buruzko bilduma kaleratzeko akordioa, orain dela urte batzuk. Oraingoz, 'Nafarroako toponimia eta mapagintza' bildumako 25 ale dira kalean baina laster beste hiru argitaratuko ditu Nafarroako Gobernuak. Guztira, 60 ale inguru osatuko dute 1993. urtearen hasieran abian jarri zen bilduma.

Ale berriak, nahiz eta Lan Katastralak enpresako ohizko lantaldearen laguntza izan, Garcia de Albizu eta Garate senar-emazteek egin dute. Normalean, enpresako lantaldeak egiten dituzten herriz herriko elkarrizketak, baina, oraingoz, Balbino Garcia de Albizu eta Arantxa Garatek ehun inkesta inguru egin dituzte baina, hala

Balbino Garcia de Albizu eta Arantxa Garatek ehun inkesta inguru egin dituzte baina, hala

Gogorra izan da, baina gustora egin dugu lan, etxean eta etxekeontzat egin baitugu».

ere, ez dituzte liburuan lorturiko toponimo guztien izenak jaso, oraindik bizirik direnak baino ez dituzte argitaratu. Hala ere, artxibategietan dauden baina erabiltzen ez diren beste asko bildu dituzte. Izan ere, liburuaren aurkezpenan senar-emazteek azaldu zuten, toponimiari buruzko beste lanen bat egin eta kalera-tzeko asmoa dute. Horretarako materiala, behintzat, ez zaie falta, 5.000 toponimo inguru baitute bilduta.

Bildumako aleak osatzeko asmoz, herriz herri ibiltzen dira Lan Katastralak enpresako langileak, tokian tokiko jendearekin hitz eginez. Hasieran bikoteka joaten ziren herrietara baina orain bakarka. Herrietako alkaterekin harremanetan jartzea da lehen pausoa, eta bigarrena haren bitartez informazioa lortzeko ahalik eta herritar egokienak bilatzea. Adindu bat eta gazte bat dira bikoterik aproposena: «Adinduek ongi ezagutzen dute ingurunea eta informazio gehiago dute baina ez dakite, ordea, mapa nola erabili. Gazteak, berriz, adinduak erraten duena gutxi gora-behera badaki, eta mapan kokatzeko arazorik ez du izaten», adierazi digu Mikel Belasko lantaldeko hizkuntz koordinatzaileak.

Oraingoz kalean diren bildumako 25 aleak egiteko orduan, zonen arteko ezberdintasunak nabaritu dituzte egileek: «Jende gutxi bizi den lekuetan aberatsagoak dira toponimoak eta industrializatu diren lekuetan, ordea, azkarrago galdu dira. Euskarari dagokionez, bestalde, euskara galtzeak ez du erran nahi toponimoak galdu direnik» azaldu du lantaldeko koordinatzaileak.

ETXEAN ETA ETXEKOENTZAT Aranzadua Ameskoako ikerketa taldeak zerikusi handia izan du Balbino Garcia de Albizu eta Arantxa Garatek bertako toponimoi buruz atera berri duten liburuaren arrakastan. Izan ere, sortu zenetik bertakoa bultzatzea izan du helburu, horretarako hainbat gai jorratuz.

Ameskoa inguruko ondasuna berreskuratu edo gogoratzeko lehen bilerak 1993. urteko abenduan egin ziren, Balbino Garcia de Albizuk 'Ameskoarrei buruzko gezur eta egiak' izeneko mintzaldia eman ondoren, hain zuzen ere. Egindako bileran, bertako gaiak ezagutzeko jakinmina



300 lagun inguru bildu ziren Zudairen liburuaren aurkezpenan.

RAKEL GIL



Ameskoako toponimiari buruzko liburuaren azala.

JOXE LACALLE

eta lankidetzarako gogo handia bazela agerian gelditu zen, baina antolatu beharra zegoen. Garcia de Albizu ere, buru-belarri sartu zen lanean eta emaztearekin batera kaleratu berri duen liburua horren adibide argia da. Ez da, gainera, azkena izango.

Garcia de Albizurentzat berebiziko garrantzia dute toponimoek; are gehiago Ameskoa bezalako bailara batean, «joan den mendearen erdialdera arte euskaraz mintzatzen baitziren bertan. Egun, euskara bertatik desagertu ondoren, haren fosilak dira toponimoak». Hori dela eta, beretzat funtsezkoa da toponimo hauek ezagutaraztea. «Lana hasi

Liburuaren aurkezpenan 300 bat lagun bildu ziren eta salgai jarri ziren 250 aleak erosi zituzten.

dugu baina jarraitu beharra dago». Garcia de Albizuren ustez, hain zuzen ere, «Ameskoa aldean badago lan egiteko prest dagoen jende ugari, baina norbaiten gidaritza behar du. Aranzadua taldeari esker, hala ere, hasi dira gauzak egiten. Taldearen lana eskertzen dute herritarrek eta horrek aurrera jarraitzeko behar dugun indarra ematen digu».

Jaiotzez donostiarra baina bihotzez eta familiaz ameskoarra den Balbino Garcia de Albizu, Ameskoabarren, Ameskoagoien eta Ameskoako Limitazioetako 2.000 toponimo biltzeko Arantxa Garatekin batera burutu duen lanaz halaxe mintzatzen da: «Lan gogorra izan da baina ardu handiz eutsi diogu. Etxean eta etxekeontzat egin dugu eta oso pozik gainera. Herritarrek ere harrera ezin hobea egin diote eta horrek poztzen gaitu». Bi urte t'erdiren buruan ehun bat inkesta egin dute inguruko biztanleen artean eta, gainera, bertako artxibategi guztietako dokumenta-

zioa erabili dute toponimoen jatorria zehazteko.

Liburua, erran bezala, joan den astean —hilaren 18an— aurkeztu zuten Zudairen eta 300 lagun inguru bildu zen. «Harrigarria izan da guretzat, gela guztia bete egin baitzen eta hori ez zen inoiz gertatu 'Nafarroako toponimia eta mapagintza' bildumako gainontzeko aleak aurkezterakoan. Aurrera jarraitzeko indarra ematen digu hori ikusteak, bertakoek hala nahi dutela baitakigu orain». Izan ere, aurkezpenan salgai jarri ziren liburuaren 250 aleak saldu egin ziren. «Herritarrek toponimoen garrantziaz jabetu dira».

Ameskoa inguruko ondasuna berreskuratzea da Aranzadua ikerketa taldearen helburua.

«Barrenetik ateratzen dugu indarra»

ANA UNANUE / ITOITZ

EGUNKARIA.— Nola aldatu da zuen bizimodua urtegiaren proiektua abian jarri zenetik?

KATALINA.— Lehen gure bizimodua oso polita zen, gogorra baina polita. Egunez gogor aritzen ginen lanean eta ilunabarrean etxe atarian elkartzen ginen denak, haize freskoa hartzera. Horrela ematen genituen orduak, hizketan. Urtegiarena hasi zenean, bat-batean hankaz gora ikusi genuen gure bizitza, egoerara egokitu

rreman estuak genituen beste herrietako familiekin, baina urtegiarena hasi zenetik zenbaitek min handia egin digute, engainatu egin gaituzte. Hona etortzen ziren, lurrak ez zituztela saldu eta oso penaturik zeudela esanez... baina gezurretan ari ziren, ordurako dena salduta zeukatzen. Horiekin erabat moztu ditugu harremanak. Beraien aldetik ez dakit, baina gure aldetik ez dugu deus gehiago jakin nahi.

EGUNKARIA.— Bi urte bete dira lanak hasi zirenetik. Goi-

tzen duzu jarraitzeko indarra».)

EGUNKARIA.— Eta nondik ateratzen duzue borrokan jarraitzeko indarra?

KATALINA.— Barren-barrenetik, barnean dugu indarra, hau geurea dela jakiteak ematen digun indarra. Itoitz herria sortu zenetik, etxe hauek zutik egon dira belaunaldiz belaunaldi. Seme-alabek gurasoengandik jaso dute eta gero haien seme-alabek hartuko dute, kaitea eten gabe. Bertako biztanle nagusiengandik jaso dugun ja-

KATALINA.— Lehen ere lehorre handiak izaten ziren eta jendeak hobeki agoantzen zuen, beste modu batera bizi zelako. Sakabanatuak bizi ziren eta bazen nahikoa ur denentzat. Murtzian bertan irrigazio sistemak oso ongi antolatuta zeuden. Orain, berriz, jendea leku berean pilatzen da, sekulako golf zelaiak daude... Berriek eta politikoei egin behar dute gogoeta euren bizimoduaz eta horrek sortu dituen arazoez. Kontuan izan dezatela gu ere pertsonak gara.

EGUNKARIA.— Zer moduzko tratua izan duzue Nafarroako agintarien aldetik?

KATALINA.— Lehendabizikoa Gabriel Urralburu (Nafarroako Gobernuako lehendakari

Katalina Etxamendi

ITOIZKO BIZTANLEA



SOSLAIA

Etxeko 'informazio zentroa'

Itoitzen hamar urte daramatzate urtegiaren kontra borrokan eta lanak pare-parean badituzte ere (asteartean berriro hasi zituzten Txintxurrenako leherketak), ez dute itxaropena galdu. Herrian bi familia besterik ez dira. Katalina Etxamendi, 67 urtekoa, Gorriztarren etxeko 'informazio zentroa' da. Goizero bere sei seme-alabak agurtzen ditu eta, gauean berandu iritsi arren, haien esperoan egoten da egunean zehar zer egin duten eta inguruan zer berri dagoen jakiteko. Kanpaldia dela eta, nahikoa lan izan dute aste honetan etxean, baina Itoitzen ez da kexarik. Aitzitik, esker oneko hitzak baino ez dituzte kanpotik etorritakoentzat.

Kanpotik datozenei lanak oso aurreratuta daudela iruditu arren, guri ez zaigu hala iruditzen. Hondamendi handia egin dute mendian, baina guk ez dugu horregatik etsiko.

ohia, sozialista) izan zen eta, egia esan, etxe honetan izugarri poztu ginen kargutik kendu zutenean. Bake ederra eman zigun. Eta harrezkero, denak antzera. Hona bizkarzainez inguratuta bakarrik hurbiltzen dira.

EGUNKARIA.— Uste duzu zure seme-alabak Itoitzen biziko direla?

KATALINA.— Ai, utziko baliagute... Azkeneraino erresistituko dugula, hortaz ez izan dudarik. Lanak hasieran daude oraindik eta bitzitzan gauza asko pasatzen dira. Nik bakean utz gaitzela besterik ez dut nahi. Eta urtegia noizbait bukatuko balute, ahalik eta urrutien joango ginateteke, eraikitzen ari diren paretatzen hori lehertuz gero urak Agoitz bera ere eramango du eta.



Matteo Gorraitzaren emaztea eta Itoizko Koordinakundeko Patxiren ama da Katalina.

arte nahasi samarra iruditzen zaizu dena. Eskerrak gure artean ongi moldatzen garen. Betidanik oso harreman onak izan ditugu seme-alabekin. Ni naiz etxeko informazio zentroa eta gauero, nahiz eta berandu iritsi, haien zain geratzen naiz, egunean egindakoaren berri izateko. Oso baturik gaude eta horrek asko lagundu digu urtegiaren aferari aurre egiteko. Gainera, urtegia dela eta oso jendē jatorra ezagutu dugu. Jende ugari etortzen da etxera, elkartasuna adieraztera, eta gustora gaude horregatik. Behin ere ez gara bakarrik sentitu.

EGUNKARIA.— Eta zer moduz inguruko herrietakoekin? Harremanak aldatu dira?

KATALINA.— Lehen oso ha-

zero zarata hori entzuteak ez al zaitu desanimatzen?

KATALINA.— Ez. Kanpotik datozenei lanak oso aurreratuta daudela iruditu arren, guri ez zaigu hala iruditzen. Egia da mendian izugarriko hondamendia egin dutela, baina ez doaz hain bizkor, eta guk ez dugu horregatik etsiko. (Alaba batek hartzen du hitza: «Guk ere uste genuen lanak hasitakoan hondatu egingo ginela, baina ez zen horrela izan; gero pentsatu genuen Europak Koordinakundearen kexa-salaketa artxibatzen bazuen, sekulako jipoia izango zela, baina hura ere gainditu genuen; eta gero esaten genuen, harrobian hasten badira, hori bai izango dela gogorra, eta berriro gainditzen duzu. Beti atera-

kinduriak ere izan du eraginik. Oso jende langilea eta gogorra zen, goizeko ordu bietan jaikitzen ziren eta egun osoa ematen zuten lanean. 98 urte zituela zendu zen osaba batek kontatu zigun aitona erloju bat erosi behar izan zuela Frantzian—hor dago, 200 urte baino gehiago ditu eta ongi dabil oraindik—, bestela ez zekiela zer ordu zen eta goizegi jaikitzen zirelako lanera joateko. Gauza horiek ez dira huskeriak guretzat. Haiengandik jasotakoa barneratu egin dugu eta horrek ere indarra ematen digu.

EGUNKARIA.— Telebistan lehortearren irudiak ikusi eta elkartasuna beharrezkoa dela entzuten duzunean, zer gogoe-ta egiten duzu?

LUCRÁNDO

© Zaldi EROA

